
2017ko azaroa | Buletinaren 069. zbk.

Gipuzkoako biztanleria landunaren ikaskuntzako jardueretan parte hartze tasa Estatukoa eta gainerako erkidegoetakoa gainditzen du

EPAk enplegua duten pertsonak inkesta egin aurreko lau asteetan ikaskuntzako jardueretan (arautuak edo ez) azaltzen duten parte hartze tasaren inguruko informazioa jasotzen du.

Estatuko batez besteko parte hartzea tasa %11,3koa da 2016an. Tasa hau EAEk (%14) zein Gipuzkoak (%18,6) gainditzen dute eta gainerako erkidegoetakoa baino balio altuagoak erregistratu dituzte.

>>[Informazio gehiago](#)

Pertsonen lana egitea oinarrizko gaitasunak ikastea eta hobetzea errazten du

Maila baxuagoa duten pertsonentzat ikaskuntzarako espazio bezala lan esperientziak duen paperaren analisisian oinarritzen da ikerketa.

Biztanleria Helduaren Gaitasunen Ebaluaketarako Nazioarteko Programan parte hartu duten hamahiru herrialdeetako gaitasun numerikoak eta irakurketakoak aztertzen ditu ikerketak, oinarrizko hezkuntza maila duten pertsonetan arreta berezia jarriz eta ateratako ondorioak honakoak dira:

>>[Informazio gehiago](#)

Unibertsitatea-entresa: topagunerako espazioak bilatu

“Talentuaren zainketa, ezagutzaren sorrera eta gizarteari transferentzia” izenpean, Adegik Kutxabanken laguntzarekin, datorren azaroaren 22an Donostian egingo den jardunaldi bat antolatu du. Ekitaldia lan gosaria formatupean egingo da.

Jardunaldiaren helburua enpresaren munduko eta hezkuntzaren munduko eragileak topatzeko espazio bat sortzea da, bi mundu hauen arteko gerturatzea, partekatzea, elkarlana eta kooperazioa erraztea bilatzen duena.

>>[Informazio gehiago](#)

PISA 2015: talde laneko emaitzak, sexuaren arabera aldatzen dira

ELGAK PISA 2015 txosteneko bosgarren liburukiko emaitza nagusiak aurkeztu berri ditu webinar baten bitartez. Atal honek arazoak elkarlanean konpontzeko ikasleen gaitasunak ebaluatzen ditu eta lehen aldia da gaitasun hau ebaluatzen dena. Txostenak ondorioztatzen du, beste gauzen artean, herrialde guztietan nabarmen hobetzen dela emakumeen errendimendua elkarlanean lan egiten dutenean.

>>[Informazio gehiago](#)

Industria 4.0 Gipuzkoan: ikasi eta ezagutza partekatu

Datorren azaroaren 22an 4.0 Industriaren inguruko bi ekintza egingo dira Gipuzkoan. Bi ekitaldi hauen helburua lurraldean ezagutza sarea sortzea, enpresen arteko harremana bultzatzea eta ekintzailatza sustatzea da.

"4.0 Industria, Enpresak eta StartUp-ak" lelopean, Konekta Caf n Mercedes Benz Vitoria enpresak hartuko du parte (Bind 4.0 programa), startup-en aldeko apustua egiten duen programa berrikuntzan gaitasunak areagotzeko modu bezala; eta baita Hupiren esperientzia, Startup (big data).

>>[Informazio gehiago](#)

Gaitasunen aurreikuspena, lan merkatuko beharrei erantzuteko erreminta

Gaitasunen aurreikuspena lan merkatua eta gaur egun eskuragarri dauden gaitasunak aztertzen duen prozesua da, gaitasunen eskaintza eta eskariaren arteko oreka hobea lortzeko eta berariazko gaitasunen garapenaren bitartez garapen ekonomikoa sustatzeko.

Cedefopen ikerketaren arabera, Estatu kide guztiak gaitasunak aurreikusteko sistema berriak ezartzen ari dira, eta hauen erabilera indartzen ari dira hezkuntza, ikaskuntza, trebakuntza eta enplegua lotzen dituzten politikak egiterako orduan.

>>[Informazio gehiago](#)

top@DIPC - Zientziarekin Solasean! edizio berria, ikaskuntzaren aldeko Gipuzkoako apostua

Aste honetan top@DIPC - Zientziarekin solasean! jardunaldiaren bederatzigarren edizioa antolatu da Donostian. Donostia International Physics Center-rek (DIPCK) antolatuta, Nobel saridun zein puntako ikertzaileen, eta bigarren hezkuntzako ikasleen arteko topaketaren helburu nagusia, Euskal Herriko DBHko eta Batxilergoko ikasleen artean, ikasketa zientifiko eta teknologikoekiko bokazioak sustatzea da, eta aldi berean ikasle gazteen ezagutzarekiko grina piztea.

>>[Informazio gehiago](#)

Beste albisteak...

>>[Interesa duten bestelako albisteak](#)

Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Oreko Departamentua
Gipuzkoa Plaza, z/g
20004 Donostia-SanSebasti n • Gipuzkoa

T. +34 943 112 217
info@ikasmina.net

Gure zerrendatik zure harpidetza bertan behera utzi nahi izanez gero, esteka honetan klik egin: [Sakatu hemen buletineko baja berresteko](#)
Gure buletin guztiak arazorik gabe jasotzeko, sartu info@ikasmina.net zure kontaktuen zerrendan.